

EZARIAN. CURLINGA EUSKAL HERRIAN

Dianan harri gehiago

Duela hamarkada bat sortu zen lehen curling taldea Euskal Herrian, eta, orain, lau taldek jokatzen dute izotz gaineko kirol horretan. Pixkanaka hedatuz doan fenomeno bat da.



Taldeko lanean oinarritzen da kirola.
Irudian, Harrikada. JUANAN RUIZ / ARP

2014-03-15 / Lander Muñagorri Garmendia

Anekdota gisa hartu daitekeen arren, adierazgarria ere izan daiteke gertaera. Otsailean egin ziren Sotxiko (Errusia) neguko Olinpiar Jokoetan gehien ikusi zen kirola izan zen curlinga. Eta Gasteizen bertan, esaterako, Espainiako ACB saskibaloia ligako partida batek baino arreta handiagoa bereganatu zuen Norvegia eta Suitzaren arteko norgehiagokak. «Gasteizen bertan saskibaloiarekiko dagoen afizioa kontuan hartuta, bitxia egin zitzaigun gertaera». Esanguratsua izan daitezke Iraitz Perez de Goldarazaren hitzak, are gehiago Arabako hiriburuan kirol hori gero eta ezagunagoa egiten ari denean. Egun, hiru talde daude han, eta hura oraindik urtebete egin ez duen Harrikada taldeko kidea da.

Kirola pixkanaka hedatzen ari da Euskal Herrian. Orain, 50 jokalaria inguru eta lau talde daude: Donostian Txuri-Berri, eta Gasteizen Iparpolo, Iceberg eta Harrikada bera. «Gero eta jendea gehiagok ezagutzen du curlinga, baina ondoren ez dakite hemen jokatzeo aukera dagoenik», dio Mikel Unanue Donostiako Txuri-Berri taldeko kideak. Baina neguko Olinpiar Jokoetan kirola hainbeste ikusi ondoren, euren webgunean jende gehiago sartu dela sumatu du Perez de Goldarazek. Gertaera anekdota hutsa izatetik harago doala dirudi.

Beraz, oraindik curlinga kirol ezezaguna da Euskal Herrian, lau talde egon arren. Nolanahi ere, tradizioa 2000. urtetik dator. Urte hartan Donostian bertan sortu zen Hydra taldea, eta horiek izan ziren euskal curlingaren lehen urratsak. 2005ean desagertu zen hura, eta Txuri Urdin izotz pistan geratu zen taldearen material guztia. «Espainiako Federaziotik material hori eskatu zieten izotz pistako arduradunei, baina hockey eta patinaje taldeko gurasoek ezetz esan zuten», oroitzen da Unanue. Material horrekin zerbait egin behar, eta hala sortu zen Donostian bigarren curling taldea, aurrekoarekin loturarik gabe. «Hydra zegoenik ere ez genekien desagertu zen arte». Ukazio bati aurre egitea izan zen, beraz, Txuri-Berriren hastapena.

Iparpolorena bestelakoa izan zen, ordea. Izan ere, Gasteizko tradizioa asperraldi baten ondorio gisa har daiteke. «Ni lehen patinaje taldeko kidea nintzen, baina gure gurasoak horrekin aspertu, eta zerbait ezberdinaren bila hasi ziren», azaldu du Sergio Vezek. Horien artean zegoen, Julian Alfonso egun Iceberg taldeko kidea. «Italiara joan nintzen batean ikusi nuen han lehenbizikoz curlinga, eta ideia hori ekarri nuen hona», azaldu du. «Zerbait ezberdin egiteko gogoa geneukan, eta azkenean curling talde bat sortzea erabaki genuen». Ukazioa eta asperdura izan dira, beraz, Euskal Herrian curlinga bultzatu duten bi eragile nagusiak.

Lehia ala aisia

Baina Txuri-Berri eta Iparpolo aisialdirako sortu baldin baziren ere, gaur egun gero eta lehiakorragoak dira biak. Hainbeste, non Espainiako txapelketetan ia sari denak bien artean jokatzeko dituzten. Adibide gisa, joan den urteko edizioan jokatu ziren 16 dominetatik 13 bi taldeen artean banatu zituzten. Hortik Europara salto egitea urrats bat besterik ez dago. Donostiako taldeko neskek, esaterako, aurten European Champions tour-ean parte hartuko dute, eta Gasteizko talde mistokoak, bestetik, Eskozian jokatuko den munduko txapelketara joango dira. Seigarren parte hartzea da haientzat, gainera. «Oso esperientzia aberasgarria izan ohi da; asko ikasten dugu bertan», dio Vezek.

Iparpolo taldean, ordea, jokalariek ez dute lehian pentsatzen. Horietatik askok aisialdi gisa ikusten dute curlinga. Tartean, Alfonsok berak: «Taldearen sortzaileetako bat izan nintzen, baina gero eta izaera lehiakorragoa hartzen hasi zen Iparpolo, eta gure leloa kirolaz gozatzea zen, maila amateurrean bazen ere». Eta modu horretan sortu zen Iceberg taldea. «Niretzat kirol lasaigarria da curlinga, eta lehiaketa batzuetan parte hartzen badugu ere, ez diogu garrantzi handirik ematen. Ondo pasatzera joaten gara».

Harrikadak ere antzeko historia du atzetik. Aisialdiari begirakoa. Perez de Goldarazena ere Iparpolo taldeko kidea zen, eta udalaren bidez curling ikastaroak ematen hasi zen beste taldekide batzuekin, eta euren entrenamendu orduetatik kanpo. Astero-astero hainbat pertsona elkartzen ziren ikastaroetan, harik eta Gasteizko Udalak laguntzak murriztu eta haien mintegia kendu zuen arte. «Ikastaroetarako libre geratu zen ordu hori guretzat eskatu genuen, eta horrela sortu genuen Harrikada». Ondo pasatzeko asmoarekin elkartu ziren haiek ere. Iceberg taldeko kideekin batera entrenatzen dira Gasteizko Buesa Arena Kirol Hiriko izotz pistan ostiralero, eta askotan partidak egiten dituztela dio Alfonsok. «Elkarren teknikak ezagutzen ditugu, baina oso ondo pasatzen dugu».

Curlingaren argi ilunak

Aisialdirako edo lehiarako asmoa eduki arren, euskal curling talde guztiek zailtasun berberak daukate: izotz pista desegokiak. Euskal Herrian kirol hori hedatzeko garaian ezinbestekoa izan da inguruan izotz pista egotea. Hala onartzen du baita Unanuek ere. «Azpiegitura hori beharrezkoa da, nahiz eta Espainian dauden talde batzuek izotz pistarik ere ez daukaten». Horri esker hedatu da curlinga Euskal Herrian, baina horien erruz ezin du indar gehiago hartu. Izan ere, kirol horretan aritzeko izotz oso laua behar da. Vezek dioenez, «gure izotz jauregietan patinatzaileak ibiltzen dira, horiek marka asko uzten dituzte, eta izotza ez da batere laua geratzen». Eta hortik datoz zailtasunak. Izan ere, zehaztasun handia behar du curlingak, eta pista oso ondo ez egoteak askotan baldintzatu egiten du. «Harriak batzuetan desbideratu egiten dira, eta nahi ez diren mugimenduak egiten dituzte», dio.

Hori dela eta, lau taldeetako kideak noizean behin atzerrira joan ohi dira, curlingera espresuki bideratutako pistetan entrenatzera. Helmuga, askotan Geneva (Suitza) izan ohi da. «Gure ohiko irteera bat izan ohi da hori», dio Unanuek.

Eta hori bera izan daiteke, era berean, kirola gehiago ez zabaltzearen arrazoietako bat. Alegia, aisialdi gisa hartzen duen taldeak ere kanpora joaten direla. Alfonsok dioenez, «jendea etortzen zaigu frogak egitera, baina dedikazio bat eskaini behar zaionean, utzi egiten dute». Entrenatzeko ordutegi mugatua daukate, eta partidaren bat jokatu nahi izanez gero, kanpora irten behar izaten da, «askotan asteburu osoa».

Azken arrazoi hori ere curlingaren beste ezaugarri baten oinarri izan daitekeela uste du, Iceberg taldeko kide eta sortzaileak. Izan ere, familia

giroko kirola ere bada curlinga. «Begira jarriz gero, talde gehienetan seme-alabak euren gurasoekin aritzen dira, edo baita bestelako ahaideekin ere», dio. Haren ustez, partidak jokatzera asteburu osoko txangoak egitera joaten direnean, azkenean familiako kideak ere hasten dira curlinga probatzen, eta ondoren «mendekotasuna sortzen zaie». Iceberg taldean, esaterako, bere alabak berarekin batera jolasten du. Unanue, bestetik, bere bikotekidearen taldekidea da. «Sekulako luxua da hori, eta, era berean, kirol parekidea dela ere erakusten du».

Finean, harremanak sustatzeko kirola dela azpimarratu dute lau taldeetako kideek. Harrikadakoek, esaterako, esparru hori garatzen dute. «Aukera ona da bidaiatu eta jendea ezagutzeko», dio Perez de Goldarazanak. Gainera, kirolaren ohituretan bertan ikuspegi hori txertatuta dago, partiden amaieran hirugarren denbora egiten baita. «Alderdi sozial horrek lehiak baino gehiago motibatzen gaitu», dio irri artean.

Gai honi buruz BERRIAk egindako bideoa ikusteko: www.berria.info

0 iruzkin

Berria

 Saioa hasi ▾

 Recommend 1

 Partekatu

Berrienetik hasita ▾



Hasi eztabaida...

Izan zaitetz lehena iruzkina argitaratzen.

 Harpidetu

 Gehitu Disqus zure webgunera

 Pribatutasuna

Informazio osagarria

Curlinga